

MORTIS CAUSA TRANSMISIOETARAKO INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

(1) ESKATZAILEA:

Inskripzioa eskatzeko legitimazioa daukatenean honako hauek dira: jabetza intelektualeko ondare eskubideen titular diren jaraunseak, eskubide horiek Erregistroaren arabera titular denarengandik *mortis causa* transmisio baten bidez eskuratu dituztelako.

- Titularra pertsona bakar bat denean, hura ageriko da eskatzaile gisa, eta berak sinatuko du.
- Titularrak bat baino gehiago direnean, bat ageriko da eskatzaile gisa (jakinarazpenak jasotzeko), baina guztiek sinatu beharko dute inprimakia.
- Eskubideen titularra pertsona juridiko bat denean, horren legezko ordezkaria ageriko da eskatzaile gisa, eta berak sinatuko du inprimakia. Betiere, dokumentu bidez egiaztatu beharko du ordezkari hori.
- Titularra adingabea edo ezindua denean, bere gaineko guraso ahala, zaintza edo kuradoretza duena ageriko da eskatzaile gisa.

(2) OBRAREN IZENBURUA:

Inskribatu beharreko eskubideen objektu den obraren izenburua adierazi. Erregistroko idazpenean ageri den izenburu berbera ipini.

(3) KAUSATZAILEA / ERREGISTROAREN ARABERA ESKUBIDEEN TITULARRA DENA:

Erregistroan egindako azken inskripzioaren arabera, jabetza intelektualeko eskubideen titular den pertsona, hil delako eskubideak jaraunseei eskualdatu dizkiena.

(4) JARAUNSE(A) / ESKUBIDEEN TITULARRA(K):

Jabetza intelektualeko eskubideak Erregistroan egindako azken inskripzioaren arabera eskubide horien titular den kausatzailearengandik jaso dituen pertsona edo pertsonak dira.

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK:

PERTSONA FISIKOEN:

NANaren fotokopia. Atzerritarren kasuan, nortasuna egiaztatzeko beste edozer dokumenturen fotokopia.

Hala ere, bai espainolek, bai Espainian bizi diren eta Espainiako agintariek emandako dokumentua duten atzerritarrek, identifikazio pertsonala egiaztatzeko berariazko baimena aurkez dezakete. Horretarako, **Nortasun Datuak Egiaztatzeko Baimena** izeneko eredia erabili beharko dute.

PERTSONA JURIDIKOEN:

Honako dokumentu hauen jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua:

- Nortasun juridikoa egiaztatzen duen titulua.
- Erakunde pertsona juridikoaren txartela (IFK).
- Inskribatzeko eskabidea erakundearen izenean sinatzen duen pertsona fisikoak duen ordezkatzeko ahalordea.

ORDEZKARIEK:

Eskatzailea ez bada eskubideen titular, titularrak/titularrek emandako ordezkatzeko ahalordea. Ahalorde hori eskritura publiko bidez edo dokumentu pribatu bidez eman daiteke. Ordezkatzeko ahalordearen erudian, notarioak edo Erregistroko funtzionarioak legitimatu behar du ahalorde emailearen sinadura.

ADINGABEEK ETA EZINDUEK:

Familia liburuaren edo guraso ahala, zaintza edo kuradoretza egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.

MORTIS CAUSA TRANSMISIOAREN EGIAZTAGIRIAK:

- Jaraunspena esleitu eta onartu izanaren eskritura publikoa. Eskritura horretan, espresuki jaso behar da transmititzen diren jabetza intelektualeko eskubideen objektu den obra, jarduera edo ekoizpena. Jaraunspena esleitu eta onartu izanaren eskritura publikoan alderdi horiek jasotzen ez badira:
 - Egilearen heriotza agiria.
 - Azken Borondateko Ekintzen Erregistroaren ziurtagiria.
 - Baliozko testamentua edo, horren ezean, notarioaren nabaritasun akta edo jaraunsearen adierazpen autoa.
 - Dagokion zerga ordaindu izana egiaztatzen duen dokumentua, Ogasun Publikoan likidazioa egiteko aurkeztu izana egiaztatzen duena, edo salbuetsita dagoela egiaztatzen duena.